

Nafarkaria

Egunkaria

Larunbata, 1997ko martxoaren 8a

*



Kantxan askotan elkarren kontra jokatu badute ere, hortik kanpo lagun onak dira Goñi eta Olaizola.

LUIS AZANZA

Pilotaren geroa

■ Pilotaren etorkizuna gazteen esku dago, eta gazteen artean, badira nabarmentzen hasi diren bi pilotari: Asier Olaizola eta Mikel Goñi nafarrak. Olaizola orain 21 urte jaio zen Goizuetan. Eskuina bikaina du eta sakearekin beldurtzen ditu arerioak. Gazteagoa da Mikel Goñi, Oronoz-Mugairin orain hemeretzi urte sortua. Berak dioenez, dejadak eta gantxoak ditu armarik onenak, baita, Olaizolak berak azpimarratu bezala, «kantxan

hain garrantzitsua den genio bizi eta berezia» ere. Lehen urtea bete dute profesionaletan, eta dagoeneko ikasi dute pilotaren munduak duen ona eta txarra. Goñik, eskura izan ondoren galdu zuen joan den astean Bigarren Mailako txapelketa, eta Olaizolak, finalerdian utzi zuen lehiaketa, Goñik berak garaitu ondoren. Txapela ez, baina esperientzia irabazi dute, dakitena erakusten hasi diren bi pilotariontzat hain preziatua dena. ■

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Izen hori eman behar diegu orain, Mugimenduak hala eskatuta. Kanean jarritako karteletan ikusi nuen lehenengo aldiz; harrituegia geratu nintzen, ordea, eta lagun bati galdetzea deliberratu nuen: «Orain marikoiak omen zarete...». Lagunak azalpen luzea eman zidan. Ez ninduen konbentzitu, eta esan zidan ezin zuela konprenitu haserre bilakatzen ari zen nere harri-

dura. «Neskak, beraz, tortillera...», segitu nuen nik. Ezetz, besteak. Luze ihardun genuen eta nire lagun homosexualak arrazoizko konklusioa eman zidan: denok dugu izena, eta susmorik sortzen ez duen edonori eskaintzen zaiona merezi dugu guztiok, dena dela sexua eta adierazteko aukeratzen den modua.

Bi gehi bi berdin lau. Konforme. Honi Joxe eta hari Joxepa. Badira hor, haatik, gezur txikiak. Izan ere, hainbeste mesprezu nótitzen duenari ezin eskatu konpostura galdu gabe iraun dezan.

«Harrotasunez» jokatu behar dela erantzun diegu maiz lehenengo le-roan joan ohi diren homosexualak. Zergatik harro? Zergatik ez? Probokazioa eta eskandalizatzeko borondatea ere harrotasunari loturik joan ohi dira. Nori egiten dioten mesede ikusi behar. Seguruaski integristari, aktiboari zein lokartuari. Homosexualak,

lasaitzeaz gain, jarraitzeko arrazoiak dituela ikusiko du, baina bi gizon edo emakume musuka ikusita sumintzen denak egiafik eta zerutik hurbilago dagoela sentitzen du. Orduan homosexualen aldarrikapenak hego haizeak bultzatuta heldu direla dirudi, inauterira eta esperpentora jotzen dute, ocañismora, eta askotan kalibre handiko matxistaren antza dutela iruditzen zait.

Progresismoaren topikoek ere ez diote onura handirik ekarri homosexualari. Topikoaren arabera homosexualak oso sentibera eta irudimen handikoa da, eta askok izaera artistikoa daukate. Homosexualak egindako filma oinazetuek beste zerbait gaineratu nahi digutela ematen du: homosexualari zama astunegiak ekartzen dizkio bere adiurreak.

Nora joan, honenbestez? Hor daude ghettoak. Ttikienetik (taberna) haundienera (auzoa). Geriza bakarra izan daiteke askorentzat, baina diferentea

omen den hainbeste jende biltzen den lekuan diferentzia hil egiten da. San Franciscoko Castro auzoko etxe bakoitzaren atarian bandera bat ikusi nuenean hasi nintzen ulertzen berdintasunaren alderdi ospelenak dena harrrapa dezakeela. Zapore hobea al du kamarero homosexualak bezero homosexualari zerbitzatutako tragoak?

Urteak eman ditut halako lagun, ezagun edo lankidearen ondoan, homosexuala zela jakin gabe. Gehienetan eurek aitortu izan didate. Poza ematen dit, Joxe eta Joxepa izan garrelako, eta hala izanen delako aurretantzean ere.

Izenak. Orain marikoi, beraz. Ez niretzat. Harrokeria etsitua iruditzen zait. Ulertu aditza hainbeste maite duten gizabanako eta talde horiek ez lukete ahortzi behar hiztegi esentziala denon artean idatziko dugula. Esku asko dago bolantean eta kotxe ugari heldu da kontrako norabidean. X

KONTZERTUAK

Aitzoain: Afrekete afrikar perkusio jaia izanen da gaur, hilak 8, Artsaia aretoan, gaueko 23:00etatik aitzina.

Iruñea: Joaquín Sabinak kontzertua eskainiko du heldu den ostegunean, hilak 13, Gaiarre antzokian, gaueko 21:30etan. Sarrerak 3.000 pezetan (120 libera) izanen dira salgai.

ERAKUSKETAK

Barañain: Teresa Izuren grabatuak herriko Kultur Etxean ikusgai izanen dira hilaren 26ra arte. Erakustaretoa asteartetik asteartera arratsaldeko 19:00etatik 20:30etara izaten da zabalik.

Burlata: Daniel Perez Flamariqueren margoak hilaren 19ra arte izanen dira ikusgai udal Kultur Aretoan, astelehenetik larunbatera 19:00etatik 21:00etara, eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara.

Iruñea: Emakumeok ere izan, bagara izeneko erakusketaren eskutik, Ana Sesma, Marian Larunbe, Maria Carmen Ibarra, Ana Carmen Claveria eta Cristina Cosin artisten pinturak ikusgai izanen dira Txantrea auzoko Auzotegi kultur etxean, hilaren 26ra arte.

HITALDIAK

Iruñea: Xabier Amuriza idazleak *Eskola euskal hiztunen sortzaile ote?* izeneko hitzaldia eskainiko du heldu den asteartean, hilak 11, Hizkuntz Eskolako Caldere-ria kaleko aretoan.

Iruñea: Emakumeak eta hiesa izeneko hitzaldia izanen da heldu den ostegunean, hilak 13, arratsaldeko 19:30etan, Iruñeko Hizkuntz Eskolan.

Mendillorri: IKAKo Menditipi euskaltegiaren eskutik *Helduentzako euskalduntze prozesua eta ikastolen sorrera frankismoan* izeneko hitzaldia izanen da heldu den ostegunean, hilak 13, ikastetxe-ko aretoan 20:00etan.

BESTELAKOAK

Lizarra: Korrika Kulturalaren eskutik, Murua eta Peñagarikano- ren bertsoak entzungai izanen dira gaur, hilak 8, gaueko 22:15etatik aitzina, Gure Hizkuntza elkartearen.

Altsasu: Korrika Kulturalaren eskutik, ipuin kontalaria eta haur-erentzako ginkana izanen da Gure Etxea elkartearen, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

Iruñea: IKAKo Arturo Kanpion euskaltegiak EGA gainditzeko ikastaroa antolatu du apirilaren zazpitik aurrera. Klaseak egunero 18:00etatik 20:00etara izanen dira. Izena emateko deitu martxoaren 21a baino lehen 22 22 46 telefonora.

nafarkronika

Alberto Barandiaran


Itoitz eta Lemoiz

Azkenean egingo ez balitz, ez dakit bigarren Lemoiz bat izango litzatekeen Itoitzko urtegiaren proiektua, baina ezin uka Bizkaiko zentral nuklearraren inguruan sortu zen auziak eta borroka ekologistak badituztela ezaugarri komu- batzuk gaur egun bizi-bizirik dagoen ez- tabaidarekin. Horietako bat da bi auziek eragin handia izan zutelá gizartearen arlo gehientsue- netan, aldekoen eta kontrakoen arteko ika-mika ugari izan zirela, eta beste bat izan daiteke agintariek, ordukoek eta oraingoek, bi proiektu- ei eman zieten babes. Baita bi kasuetan ai- patu ziren «arrazoi estrategikoak eta etorkizu- nerako funtsezkoak» eta ekologisten aho bateko gaitzespena ere. Desberdintasun handiak ba- dira, jakina —besteak beste ETAre- n eskuartze erabakigarria Bizkaiko zentralaren proiektua- ren aurkako borrokan—, baina askorentzat oso adierazgarria izan daiteke egun hilik dagoen Kantauri ertzeko munstroaren irudi itzela.

Ordukoan bezala porlanezko eraikin izuga- rriaren itxura hartzen ari den Itoitzko urtegiaren

etorkizunerako garrantzi handikoa izan daite- ke, horregatik, Espainiako talde ekologistek abiatu behar duten kanpaina berria. 170 talde inguru biltzen dituen CODA, Greenpeace edo WWF/Adena bezalako elkarte ekologistak —az- ken biak prestijio handikoak mundu osoan eta ikerketa zientifikoa-ri garrantzi berezia ematen diotenak— bertan egotea ez da harrigarria, baina bai esanguratsua proiektu erraldoi honek sortu duen kontrako jarreraz. Esanguratsua den bezala CCOO sindikatuak ere parte hartuko duela kanpaina berean, nahiz eta Nafarroan oraindik oso garbi ez den mintzatu alde edo kontra.

«Ekintza irudimentsuak» iragarri dituzte talde horiek, bereziki Nafarroan egingo direnak, bai- na, bitartean, gobernu foralak berretsi egiten du aukera duen aldioro hitzartuta eta ondo lotuta dagoela dena, eta datorren hilabetean Madrilgo Gobernuak beste bultzada bat emango diola proiektuari. Egun inork ez du defenditzen Le- moizko zentrala, bere garaian Euskal Herriaren etorkizuna han zegoela esan bazen ere.



asteko pertsonaiak



Pedro Mari Zabalza
Osasunako entrenatzaile ohia

■ Juan Luis Irigarai Osasunako presidenteak Pedro Mari Zabalza kar- gutik kentzea erabaki zuen joan den igande gauen, gorritxoek Albaceteren aurka 2-1 galdu ondoren. Miguel Sola da taldeko tekniko berria. Osa- sunak azken 20 urteotako saillkapenik txarrena du egun, Bigarren B mailara jaisteko postuetan baitago. Irigarai Zabalzaren zesearen berri eman zuenean, azaldu zuen taldeak hartutako maldan beheerako bideak erabakiak hartzea eskatzen zuela. Orain, publikoaren erreakzioa ikustea falta da. Zabalza bera harrituta azaldu zen zesearen berri eman ziotenean, baina joan aurretik, dei egin zuen Osasuna maite duten guztiek elka- rrekin lan egin dezaten.



Maria Alvarez
Aktorea

■ Maria Alvarez Falcesko aktoreak Aktoreen Biltzarraren banaketako emakumezko aktorerik onenaren saria jaso berri du Madrilén, *Yankis y yonquis* obran egindako lanari esker. Madrilén bertan, Galileo Kultur Zentroan, Christopher Durangen *Aquí necesitamos desesperadamente una terapia* obra estreinatu zuen ostegunean, Teresa Merinoren kon- painiarekin. Maria Alvarezek Iruñean eman zituen lehen urratsak an- tzerkigintzan, Nafarroako Antzerki Egonkorrean eta Nafarroako Antzerki Eskolan. Handik Madrilera bidea hartu zuen hainbat lagunekin, eta bertan ari da gaur egun lanean. Besteak beste, Concha Velasco eta Jose Coronadorekin egin du lan.

ahaztu gabe!



KANTU TXAPELKETA

Burlata: Joan den astean Done- teben abiatu zen Nafarroako Haur Kantari Txapelketa, Bor- datxo dantzalekuan. 500 lagun bildu zen bertan, eta saioan kan- tu berri eta zaharrak entzun aha- izan ziren. Gaur, txapelketako bigarren kanporaketa egingen dute Burlatan. Arratsaldeko 4:30etan hasiko da, Kaputxinoak ikastetxean. Iruñea, Atarrabia, Zizur, Irunberri, Berriozar, Ba- rañain eta Burlatako hamazazpi bikotek hartuko dute parte kan- poraketa honetan.

Bigarren saio honetan bakar- lari bat, lau bikote eta hamabi talde ariko dira lehian. Epaima- haia, berri, Amaia Zubiria eta Mikel Markez abeslariak eta Kol- do Pastor Iruñeko Orfeoiko zu- zendariak osatuko dute gaur- koan.

Hurrengo kanporaketa Liza- rran izanen da, hil honen 16an. Han argituko da Iruñeko Gaiarre antzokiko finalean zein haur izan- nen diren. Nafarroako Haur kan- tari Txapelketako Iruñeko saio nagusia hilaren 23an egingen dute.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostira- lera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 12.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00eta- ra *Karakola segi hola gazteen- dako* saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkar- ritzketak.

Irati Irratia FMko 107.7n eta 103.8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haur- erentzako saioa 12.30etan.

Belagua

Goimendi Ibilaldia egingen dute bihar

Nafarroa Kirol Elkarateak antolatuta, 200 eskiatzailze inguruk hartuko du parte

Belaguako Goimendi Ibilaldiaren hogeita seigarren ekitaldia egingen dute bihar, Nafarroa Kirol Elkarateak antolatuta. Belaguako aterpetik abiatuko dira partehartzaileak eta Aniera igo ondoren, berriro itzuliko dira. Antolatzaileen aurreikuspenen arabera, 200 eskiatzaile inguruk hartuko du parte bihar-ko ibilaldian.

Erredakzioa / Iruñea

BELAGUAKO Gomendi Ibilaldiaren 26. ekitaldia ospatuko dute bihar. Nafarroako Kirol Elkarateak antolatu du, Nafarroako Gobernuako Kirol eta Gazteriaren Institutuaren, Nafarroako Aurrezki Kutxaren, Izabako Udaleren eta Erronkariko Bailaren Batzordearen laguntzaz.

Iaz, hogeita bostgarren ekitaldia zela eta, berezia izan zen Belaguako Goimendi Ibilaldia, eta hori dela eta, hasiera berritza jo dute aurtengoa antolatzaileek. Ibilaldi ez lehiakor honen helburuek, dena den, berdinak izaten jarraitzen dute: mendi eskia hedatu eta bultzatu, eta Pirinioak gure herrialdean dituen aukerak ezagutzera eman. Belaguako Goimendi Ibilaldia estatu osoan aintzindarietako bat da eta hogeita bost urtez batean ere hutsik egin gabe burutu da orain artean, elurra aurkitzeko aukera eta alternatiba ezberdinei esker, neurri handi batean. 1972. urtetik, mendi eskia zaleen bilgune da Pirinioetako frogaren berezi hau.

Ibilbidetari dagokionez, Belaguako aterpetik abiatuko dira partehartzaileak Zamporiko gailurreraino, eta bertatik, Larra



200 eskiatzaile inguruk hartuko dute parte bihar Belaguako Goimendi Ibilaldian.

ARTXBOKOA

zeharkatuko dute Pescamouko lepora ailegatzeko. Bertatik, 2.505 metroko Anie mendia igoko dute Biarnoko aldetik. Itzultzeko, ibilbidea berdina izanen da. Nafarroa Kirol Elkarateko kideek azpimarratu dutenez, paisaiaren edertasuna da ibilbide honen ezaugarri nagusienetarikoa bat. Halaber, aldapa gogorregiak ez badaude ere, luzera dela eta gogorra sueta daiteke ibilbidea. Iraupenari dagokiola, antolatzaileek osotara sei ordukoa izanen dela aurreikusio dute. Goizeko zazpitan abiatuko dira Nafarroa Kirol Elkaratearen Angel Oloron aterpetik partehartzaileak.

Segurtasun neurri ugari • Segurtasunaren gaia ere hagitzen garrantzitsua da Goimendi Ibilaldiko antolatzaileentzat. Gaur ibilbidean zehar ezarritako kontroletan gaua emanen duten kideek ibilbidea ongi markatuko dute inor gal ez dadin.

Erabilitako material guztia itzuleran jaso egingen dute, mendian deus ere ez uzteko. Kontrolatuko eta larrialdietarako guneetako kide guztiak aterpetik koordinatuko ditu ibilaldiaren zuzendari teknikoak.

Osotara, sei kontrol izanen dira ibilaldian eta bakoitzan hiru lagun izanen dira. Halaber, anto-

lakuntzako hainbat kidek eta bi medikuek osatu taldea ere ibilbidean egonen da, baita DYaren talde bat. Eta aurrekoetan ez bezala, Nafarroako Gobernuako Suhiltzaileen Patzuergoko mendi erreskate-taldeak hartuko du parte ibilaldian.

Aurtengo ekitaldian 150 lagunek hartuko du parte, oraingoz. Horiyako gehienek Belaguako aterpean emanen du gaua. Gai-nontzekoak Asolaze aterpean geldituko dira.

Partehartzaileen kopuruak gora egin dezake bihar oraindik. Antolatzaileek 200era ailegatu daitekeela iragarri dute. X

Iruñea

Euskal Astea hasiko da astelehenean unibertsitatean

■ NUPeko Euskara Taldeak antolatutako ekitaldien artean Euskal Jaia egingen dute ostiralean

Erredakzioa / Iruñea

NAFARROAKO Unibertsitate Publikoko (NUP) Euskara Taldeak antolatuta, datorren astelehenean ostiralerara bitartean Euskal Astea ospatuko dute Arrosadiako kanpusean. Ostiralean, azken egunean, Euskal Jaia egingen dute urtero lege. Egun osoan izanen dira hainbat ekitaldi.

Astelehenean, aste osoko ekitaldiak aurkeztuko dituzte Euskara Taldeko kideek, goizeko hamaika eta erdietan, eta ondoren, hasiera ofiziala emanen diote Euskal Asteari. Hamaiketako izanen da, fanfarrearen soinuak lagundurik. Eta arratsalde par-

tean, zortziak aldera, Deabru Beltzak txotxongilo taldeak bere ikuskizuna aurkeztuko du. Fermin Muguruza abeslariaren panpina izanen da protagonista nagusia talde horren emalaldian.

Asteartean, mus eta pintxazoan aritzeko aukera izanen da, goizean, antolatu txapelketetan. Arratsaldean, hitzaldia izanen da. Euskal unibertsitatea zertan den izanen da jorratuko duten gaia. Hizlariak, berriz, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle kanporatuak izanen dira, baina antolatzaileek ez dute oraindik zehaztu nor etorriko den.

Asteazkenean, goizez, kartetan jokatzeko jarraituko dute NUPeko

ikasleek. Eta arratsaldean, Morau kantari hernaniarrak hitzaldi-kantaldia eskainiko du. Euskara Taldeko kideek azpimarratu dutenez, kantariak bere emalaldia eskaini ezezik, entzuleek ere parte hartu ahal izanen dute, galderak egin, besteak beste. Ostegunean, karta jokoen finala egingen dute, eta eguerdian, Korrikaren aurkezpena. Bideo emalaldia izanen da. Arratsaldeko sei eta erdietan, berriz, hizkuntza gutxituei buruzko hitzaldia egingen dute. Kantabria eta Asturiasko hainbat taldek hartuko du parte. Moderatzaile lanetan, berriz, EKBko kide bat ariko da.

Eta ostiralean, Euskal Jaia os-

patuko dute. Goizeko bederatzi eta erdietan hasiko da, dianen soinuarekin. Hamarretan, irekiera ofiziala egingen dute eta Taldeak eta beste izanen dira das-tagai. Ordubetan beranduago herri kirolak izanen dira, eta eguerdian, kalejira. Ondoren, dantza emalaldia ikusi ahal izanen da unibertsitatean, eta ordu bi eta erdietan bazkaria egingen dute.

Arratsaldean ere izanen da zer ikusi eta zer egin. Lauretan, euskal joteroak eta bertsolariak ariko dira, eta seietan, kontzertua hasiko da. Mundiñano anaiek eta Herensugea, Nahi Ta Nahiez eta Etzakit taldeek hartuko dute parte. X

Tafalla

Martxo
Fotografikoa
antolatu du Higuera
taldeak urtero lege■ Hiru erakusketa
izanen dira
egitarauaren ardatz

Erredakzioa / Iruñea

TAFALLAKO Higuera Argazki Taldeak Martxo Fotografikoa antolatu du, aurrekoan ere. Argazkilaritzaren munduarekin zerikusirik duten zenbait ekitaldik osatuko dute hilabete osoan garatuko den egitaraua. Martxo Fotografikoaren ardatz, hain zuzen, Tafallako Kultur Etxean ikusgai izanen diren hiru erakusketa izanen dira. Ekitaldi horien bitartez, argazki zaletasuna bultzatu nahi dute antolatzaileek, eta era berean, jada zaletuak direnei argazkilaritzaren inguruko egitarauarekin gozatzeko aukera eskaini.

Datorren asteartera arte, hasteko, Isidro Samaniego Tafallako argazkilaria izanen dira ikusgai joan den astelehenean geroztik. Tafallako inauterien gaia aukeratu du erakusketa honetarako. Samaniegok askotan erakutsi ditu bere lanak Tafallan eta baita bertatik kanpo ere, baskaria zein taldeak antolatu erakusketetan.

Juan M^a Tolin zarautzarrak, bestalde, erakusketa aretoa hartuko du hilaren 12tik 23ra bitartean. Aurtengo Martxo Fotografikorako txirindularitzaren gaia aukeratu du Tolinek gaitzat, zehazki, Frantziako Tourra, gai honetan aditua baita. Zarautzako Argazki Elkarateko kidea da eta bere lanek hainbat sari eskuratu dute.

Aurtengo erakusketa zikloa Fernando Mugikak itxiko du. Bere lanak hilaren 24tik apirilaren 2ra bitartean izanen dira ikusgai Tafallako Kultur Etxeko aretoan. Argazkilaria eta kazetari honek, munduko hainbat gerfen inguruko argazkiak zintzilikatuko ditu Tafallan, berak egindako bidaietan ateratakoak.

Erakusketa hauetaz gain, izanen da hilean zehar beste hainbat ekitaldi. Besteak beste, argazki rallya egingen dute 23an. Aurtengoa bosgarren ekitaldia izanen da eta hamaiki frogaren egitaraua osatuko dute. Udaletxean goizeko hamarretan abiatuko da argazki rallya. Parte hartu nahi duenak bertan eman behar du izena rallya hasi aurretik.

Higuera Argazki Taldeak antolatu ekitaldiak arrakasta handia lortu du aurreko ekitaldietan, eta aurrekoan ere hala gertatzea espero dute Higuera Taldeko kideek. Partehartzaileen artean hainbat sari banatuko dituzte antolatzaileek, besteak beste bilduma onenarena eta proba bakoitzeko argazkilarik onenarena. Argazki rallya amaizuta, hamaiketako izanen da partehartzaile guztientzat. X

Goñi eta Olaizola,
urtebete profesionaletan

Bihar errebantxa

Asier Olaizola eta Mikel Goñi pilotariek lehen urtea bete dute profesionaletan, eta pozik ageri dira

Asier Olaizola eta Mikel Goñi hasi dira daki-tena erakusten. Joan den astean amaitu zen Bigarren Mailako txapelketan finala galdu egin zuen Goñik Kokaren aurka, Olaizola finalerdian kanporatu ondoren, baina kontent dira profesionaletako lehen urtean lortu dutenarekin. Bi pilotariak, lagun handiak, askotan izan dira aurkari kan txan. Errebantxarako aukera izanen du Olaizolak bihar bertan.

Edurne Elizondo / Doneztebe

GAUR abiatuko da Logroñon Lehen Mailako Manomanista. Joan den larunbatean Bigarren Mailako txapela irabazi ondoren, pilotaren munduko handiekin izanen da Juantxo Koka donostiarra. Mikel Goñi nafarra garaitu zuen finalean, Donostiako Atano III.an. Eskura izan zuen Oronoz-Mugairikoak garaipena, baina Kokak eraman zuen.

Asteartean, Goñi penaz mintzatu zen gurekin Doneztebeko kafetegi batean. Lehen Mailan jokatzeko aukera galdua gogoratzean. Finalerdian antzeko tristura sentitu zuen Asier Olaizolak, Goñik kanporatu zuenean. Baina bi pilotarion karrera hasi besterik ez da egin, eta aurtengo penak ahaztuta, etorriko zaie



Mikel Goñi eta Asier Olaizola, Doneztebeko pilotaleku zaharrean.

LUIS AZANZA

ahaleginaren fruituak jasotzeko garaia, pilotaren geroa baitira.

Mikel Goñi orain hemeretzi urte jaio zen Oronoz-Mugairin, eta otsailaren 17an bete zuen lehen urtea profesionaletan. Bi urte zaharragoa da Asier Olaizola goizuetarra. 21 urteko gazte honek apirilaren 13an ospatuko du

bere debutaren urteurrena. Profesionaltako bere lehen partidua, hain zuzen, Mikel Goñiren aurka jokatu zuen, «eta berak irabazi zuen, 22-7», gogoratu du Olaizolak, Mikeli begira. Kantxa barruan askotan elkarren aurka jokatu badute ere, kantxatik kanpo lagun onak dira, eta haien arteko partiduetako emaitzak ere txantxetarako aitzakia izaten dira askotan.

Pilotari ezberdinak badira ere, berdintsua izan zuten hasiera pilotaren munduan. Eskolan, alegia. Eskolarteko txapelketak izan ziren jokatu zituzten lehenengoak. Inguruan sumatutako zaletasunak ere izan zuen eraginik. «Nik etxean, aita eta osabengandik jaso nuen zaletasuna», azaldu du Goñik. Berdin Olaizolak: «Alta ibiltzen zen pilotan, baita osabak ere. Goizuetan, gainera, indar handia izan du pilotak. Orain ere, hurrez beteta izaten da pilotalekua».


Eskolatik afizionatuetara igaro ziren biak. Goizuetakoak bi urte eman zituen maila horretan, eta Goñik sei partidua besterik ez zituen jokatu. Ia batera eman zuten profesionaletan hasteko pausoa. «Alde handia dago», azpimarratu du Olaizolak. «Afizionatuen artera igarotzea salto handia da, eta uste duzu hor esperimentzia hartzen duzula baina profesionaletara pasatzean konturatu zara berriro hasi behar duzula».

Are handiagoa izan da aldea Goñirentzat, afizionatuetan eman zuen denbora laburra kontuan hartuta. Baina ez da damutu hartutako erabakiaz. «Ilusio

handia nuen eta aukera bat sortzen denean hartu egin behar da». Halako zalentza uneen, aitaren aholkua izan zuen lagun. «Berak badaki nik baino gehiago eta beti izan dut ondoan, familia guztia bezala. Ideiak ez nituen garbi eta hark lagundu zidan erabakia hartzen».


Lehen urtea, gogorra baina polita

• Profesionaltako hasi zirenetik urtebete igaro denean, bada bizi eta ikasitakoari buruz balantze egiteko garaia. Esperimentzia ona izan da biezat, baina ohartu dira onak eta txarrak dituela pilotaren munduak, irabazten eta galtzen ikasi beha-



Mikel Goñiren eskuak, jada, hagitz garrantzitsuak dira pilotaren munduan.

LUIS AZANZA



Olaizolaren eskurik onena eskuina da, baina ezkerre ere trebatzen hasi da.

LUIS AZANZA

Goñi eta Olaizola,
urtebete profesionaletan

rra dagoela, alegia. Mikel Goñi-
rentzat uste baino gogo-
rragoa izan da. «Hagitz polita
ikusten nuen dena hasieran,
nire bizitza konpondua, baina
ez da hain erraza».


Bigarren Mailako txapelke-
tan bizi izandako gora-behe-
rek ere eman diote zer pen-
tsatu. «Hasieran ez zuten ni-
gatik txanpon bakarra ere
ematen, baina finalean sar-
tzea lortu nuen. Zortea izan
dut. Egin dudak txapelketa-
rekin kontent nago, nahiz eta
finala galdu. Eta nik galdu
nuen. Oraindik buruan dut,
baina badakit atzendu egin
behar dudala».

Asier Olaizolarentzat ere es-
perientzia ona izan da azken
urtekoa. «Lehendabiziko ur-
tea izanik, uste baino hobe-
a. Nahiko ongi ibili naiz baina
finalerdian egun txarra izan
nuen, eta hor gelditu zen nere
txapelketa. Horregatik gelditu
nintzen gaizki, ez nuelako nire
partidua egin». Bigarren Mailako
finalera iristerik izan ez
bazuen ere, Goizuetakoak
ezagutu du Lehen Mailan jo-
katzea zer den, bikotekako
txapelketan ordezko izan bai-
tzen. «Polita izan zen. Eugien
partez bi partidua jokatzeko
aukera izan nuen, eta bietan
irabazi genuen. Nahiko gus-
tura gelditu nintzen».

Asier Olaizolaren ustez,
hain zuzen, kantuan ahalik
eta ordu gehien ematea fun-
tsezkoa da pilotari gazteen-
tzat. «Gimnasioari, askotan,
garrantzi gehiegi ematen zaio.
Nik uste dut gazteontzat oso
inportantea dela fisikoa, bai-
na kantuan trebatu behar
dugu, ordu anitz sartu kan-
txan kokatzen ikasteko, lasai
egoten ikasteko». Olaizola as-
tean behin joaten da Herna-
niko gimnasio batera, eta
gainontzeko egunetan Goi-
zuetan entrenatzen da, las-
terka eta pilotalekuan. Anaia,
Salaberria eta Apeztegia iz-
aten ditu kantuan lagun. Goñi,
beriz, Errandonea anaiekin
eta Tabernarekin entrenatzen
da Beran. Egutero joaten da
hango gimnasioa.

Goian diren pilotariekin
aritzea hagitz garrantzitsua
da blientzat, «gauza asko ira-
kaste ahal digutelako». Goñi
aipatu duen bezala. «Guk
ez dugun esperientzia dute.
Nik, adibidez, ez nekien sarea
altxatzen, hutsune handia
nuen, eta Galarzak erakutsi
dit. Askok jokatu dute buruz
buru eta badakite zenbat
sufritu behar den», gaineratu
du Goizuetakoak. Eta bera
ere, Mikel Goñi bezala, hasi da
hori zer den ikasten. Baina
pilotaren etorkizuna dira,
itaropen berria, eta horrek
aurrera jarraitzeko indarra
ematen die.

Bihar, indar hori neurtzeko
aukera izanen dute berriz
Mikel Goñi eta Asier Olai-
zolak, elkarren kontra, Eibar-
ko Astelenan. Goñik Lasa izan-
en du lagun, eta Olaizolak
Galarza. Bigarren Mailako fi-
nalerdiko partiduen ondoren,
bi nafarron arteko erre-
bantxa.



Oronoz-Mugairin jaio zen Mikel Goñi orain dela hemeretzi urte.

LUIS AZANZA

«Futbolariak baino indartsuagoak gara»

■ Olaizola eta Goñi buruz buru pilota kantxatik kanpo, geure galderei erantzuteko

E. E. / Doneztebe

MIKEL GOÑI eta Asier Olaizola
lagun handiak direla berehala
igartzen da, biak buruz buru
kantxatik kanpo ikustean. Ha-
laxe harrapatu genituen guk ere,
lagun giroan. Profesionaletan
eman duten lehenengo urteaz
hitz egin ezezik, ondoko galde-
tegiari erantzun zioten biek.

■ Lehen mailako buruz burukoak
irabazteko faborito bat.

Mikel Goñi: Zaila da bakar bat
erratea. Arretxe, Beloki eta Eugi
aipatuko nituzke.

Asier Olaizola: Asko daude, nik
ere Arretxe, Beloki eta Eugi auke-
ratuko nituzke, horietako bat.

■ Pilotari gogokoena.

Goñi: Julian Retegi idolo izan
dut nik beti. Orain ondoan izatea
niretzat poz handia da, hagitz
gustura nago. Konfiantza jarri du
nigan. Ongi moldatzen gara, adis-
kideak gara, ea horrela jarraitzen
dugun...

Olaizola: Nik sekulan ez dut ido-
lorik izan pilotarien artean, ez dut
faborito bat izan guztien artean.
Retegi beti gustatu zait hagitz pi-
lotaria delako, Ladis Galarza ere
bai, badira batzuk baina ez bat
bakarrik.

■ Bikotea egiteko pilotari bat.

Goñi: Beloki, Elkorro, Arretxe...
Lehen Mailako atzelaririk hobe-
renak. Horiekin jokatzeko gero na-
gusiak dira partidua, eta hori
seinale ona da.

Olaizola: Goian diren pilotarien
arteak edozeinekin egingen nuke
bikote. Nik jokatu dut Belokirekin
eta Zezeagarekin eta uste dut ha-
gitz atzelari onak direla, eta ho-
rietako edozeinekin gustura jo-
katuko nuke.

■ Kantxarrik gogokoena.

Goñi: Egia erran, berdin zait,
baina esperientziarik onena Lab-
riten izan nuen txapelketan
Asierren kontra irabazi nuenean.

Olaizola: Nik ez! —irri egiten

du—. Niri gehien gustatzen zaiz-
kidanak Tolosako eta Bergarako
kantxak dira.

■ Txapelik preziatuena.

Goñi: Lehen Mailako buruz
burukoak, zalantzarik gabe.

Olaizola: Pilotari guztientzat da
preziatuena. Irabaziz gero hor
gelditzen da. Bikotekakoa baino
askoz garrantzitsuagoa da.

■ Zer duzue nahiago, entrena-
mendua edo parranda lagune-
kin?

Goñi: Hori argi dago, parranda!
Baina ahal baldin bada baka-
rrik...

Olaizola: Biak, bakoitza bere
unean.

■ Zein dituzue ezaugarri nagusi-
ak, zuen ustez?

Goñi: Ni ez naiz Asier bezain
indartsua, sarea berak nik baino

hobe du. Ezkerra, gantxoak eta
dejadak dira nire tresnak, eta
tantoa erabakitzen dudala.

Olaizola: Eskuina ona dudala
esaten didate, nire indarra hor
dago, eta sarea.

■ Landu beharreko hutsuneak.

Goñi: Batez ere, esperientzia
falta.

Olaizola: Esperientzia falta, bai,
eta fisikoa. Asko hobetu behar
dut fisikoa, eta baita ezkerra ere.

■ Nolako pilotaria da bakoitza
bestearentzat?

Goñi: Hasi zu...

Olaizola: Mikel niri asko gusta-
tzen zait pilotari bezala, batez ere
baduelako klase handia, baditu
bi esku oso onak eta oso pilotaria
da. Badu kualitate asko, eta kan-
txan behar den gauza bat: genio
bizia eta berezia.

Goñi: Hori bakarrik? —irriz has-
ten da, baina serio jartzen da la-
gunaz mintzatzean—. Olaizola-
ren armarik onena, nire ustez,
sarea da. Sakez egiten ahal ditu
bost edo hamar tanto, erraz. Es-
kuina ere hagitz ona du, segituan
egiten du tarteak. Badaki mozten
eta fisikoki ongi dago, eta kantuan
lasaia da, ez da larritzen.

Olaizola: Ez zenuen ba esaten
finalerdia jokatu genuenean oso
urduri nengoela?

Goñi: Xuri-xuria zegoen! Bero-
tzen hasi zenean ikusi, eta xuri-
xuri zegoen!

Olaizola: Ez nengoela urduri! Ni
xuri-xuri, eta zu, gorri-gorri!

■ Autografo asko sinatu al duzue
herrian dagoeneko?

Goñi: Herriko guztien artean
banatu ditut nire argazkiak.

Olaizola: Herrian ez dut autogra-
forik sinatu oraindik, baina kan-
poan bai, partiduetan. Batzuetan
ongi dago, baina bestetan...

■ Hain gazte eta famatuak. No-
lako sentsazioa da?

Goñi: Fama jakin behar da era-
maten. Batzuetan txarra da, bai-
na polita ere bada.

Olaizola: Niretzat polita da, ka-
lean gelditzea, ezagutzea...

■ Zer du pilotak futbolak ez due-
na?

Goñi: Gu indartsuagoak gara,
baina futbolak pilotak baino ja-
rraitzaile gehiago du.

Olaizola: Oso kirol ezberdinak
dira; bata hankekin jokatzeko da,
eta bestea eskuekin. Pilota
oraindik ez da futbola bezain eza-
guna. Baina telebistari esker, ge-
ro eta gehiago zabaltzen ari da.
Zaletasun handiagoa dago orain.

■ Martxoaren 8a dela eta, zer
irudituko litzaizueke emaku-
meekin jokatzeko buruz buru-
koa?

Goñi: Nik jokatu izan dut ema-
kumeekin, bikoteka. Eta irabazi
ziguten, Baztango txapelketan,
bederatzi urte nituenean. Baina
ez dira ausartzen.

Olaizola: Nik ere jokatu dut, ha-
mar urterekin, Labriten. Bizkai-
tar baten kontra jokatu nuen eta
orain palan aritzen da. Niri gus-
tatuko litzaizake neskekin josta-
tzea, baina oso gogorra da. x



Asier Olaizolak, 21 urte, apirillean egingen du urtebete profesionaletan.

LUIS AZANZA

Xanti Begiristain

Grebaren inguruan

■ Atzo greba egin nuen. Nola edo hala, ongi informatuta dagoen edozein pertsonak jakinen du dagoeneko zein ziren atzoko greba orokorra deitu eta egiteko arrazoiak.

Hala eta guztiz ere, norbait oraindik galduta badabil, hementxe emango ditut laburturik, grebarako deia egin zutenen ziorik nagusienak:

1.— Euskal Herrian bakea lortzeko proposamen argi bakarra ezagutarazteagatik, Herri Batasunako Mahai Nazionalako kide gehienak espetxeratu dituztelako. Alternatiba Demokratikoaren edukia hedatzean, adierazpen askatasuna baliatu baino ez da egin.

2.— Gatazka politiko hau elkarriketa eta negoziazio politiko baten bidez konpondu behar delako. Baina bidea ireki beharrean, elkarriketarako proposamen bakarra kriminalizatu du Espainiako Gobernuak.

3.— Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea duelako. Euskal herritarrok gure erabakiak muga inposaturik gabe hartu nahi ditugu, baina gaur egun hori ezinezkoa da. Beraz, eta demokratikoki ez dagoenez gero Euskal Herriarentzat eta euskaldunontzat, presionatu egin behar dugu demokrazia lortzeko.

4.— Errepresioa eta zapalkuntza ez direlako bidea. Gure herria eraikitzearen aldeko indarrak aurrera doazela erakutsi behar dugu.

5.— Espainiako proiektua defendatzen dutenak indarkeriaz baliatzen direlako beren ideiak inposatzeko. Eskubideak ukatzen dizkiguten mugak, Armada, Polizia, Guardia Zibila, Espainiako Legedia, Monarkia, epaileak eta abar ez dira euskaldunok hautatuak, baizik eta Espainiako Estatuak inposatu dizkigu indarraren indarraz. Epaileek, guk egin ez dugun legez zigortzen gaituzte. Eta indar armatuek kolpatu, torturatu edo hil egiten dute horri aurre egiten diona. Komunikabide gehienek hau guztia ezkutatu eta ixildu egiten dute.

6.— Herri honek ezin duelako gehiago itxaron. Premia larrian dago gure etorkizuna. Euskal Herriak bizi behar du, munduan gertatzen ari diren aldaketek gure erabakiak hartzea eskatzen digute. Hil edo biziko kontua da. Ezin geldi egon. Ezin zain egon.

7.— Euskaldunon erabakiak Espainiak ez dituelako errespetatzen. Esate baterako, NATO eta Espainiako Konstituzioaren aferei dagokienez. Berdin zaie. Giza eskubideak edo beraien legeak ere ez dituzte betetzen kasu askotan. Euskal gizarteak bere presoak Euskal Herrian nahi ditu, eta beren giza eskubideak errespetatzen, baina hala ere, sakabanaketa mantentzen dute.

8.— Euskal Herriaren aurkako sabotaiak egunero ari direlako suertatzen. Industriak desegiten dituzte, ura lapurtu (Itoitz), Lurraldea hondakinez eta eraikin erraldoiz bete. Edo turismoaren hatzaparretan jarri. Nekazaritza, arrantza eta merkataritza txikitzen ari dira. Langileen izerdiaz aberastu direnen interesak dira nagusi. Langabezia izugarria da, lan baldintzak gero eta kaskarragoak, eta horrela herri honek ez du etorkizunik.

9.— Gure etxean arrotz bilakatu nahi gaituztelako. Hizkuntza, kultura eta abar *ghetto* edo museo batean gorde eta ito nahi dituzte. Euskaraz bizi nahi dugula adierazi behar diegu harrotasunez.

10.— Eskubidez dagokiguna gure eskutan hartu nahi dugulako. Haiek, aldiz, indarkeriaz, zapalkuntzaz eta Espainiako legeen aplikazioaz isildu nahi gaituzte. Goraipa dezagun adierazpen askatasuna!

Bukatzeo bi gauzatxo: UPNk isunak iragarri ez al du mehatxu eta bortxarik egiten? Greba hau Ezker Abertzaleak lagunduz soilik, hor ikusten da zein den Gobernuetik egiatzko alternatiba.

Demokrazia Euskal Herriarentzat! ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Josemiel Bidador

Emaztekien segida 17:
Faustina eta Tomasa
arabarrak

■ Gaurkoan ezugu Maurizio Ravel Uharte zenaz mintzatzeko asmorik, durdurikan egon garen arren, izan ere, atzo bete baitziren 122 urte Ziburun sortu zenetik. Ordea, eta berebiziko efemerideak aitzaki hartuta hasiz gero, gaurko partez bihoa emakumearen omenezko honakoa. Gasteizen arizan ziren Arabako bi pailardez nola halaber pairatu zutenaz jarduteko gutiz gehien ondua dena, Ravel baino ospe apalekoagoak izanik ere, irakurlearen arreta bereganatzerainokoak bederen gai direlako segurantz ia osoan.

Esan ohi da XVIII. mendea argien gizaldia dela, ilustratuen garaia, eta Euskal Herrian adibide ezin argigarriagoa badugu honen erakusgarri 1764.ean sortu RSBAP. Baina honekin batera, egungo txirotasun abantxu errez ahaztorratzen du orduko pobrek ez zuela argizatzeko aukera gehiegirik, eta, tamalez, aisago tinketz ahazten du emakumezkoak guztiz at geratu zirela ildo berritzaileatik, are negargarriagoa dena. Egia da aitzineko mendeetatik emakumearen begirunea aldarrikatu duela baten batek, inor gutxi zehazteko, baina andreen hezkuntza eskatu duen orok emazte zein ama eredu garria izan du helburu, ez besterik, eta beraz, aldarrikapen geurtia bezaín mingarria bada dudarik gabe. Eta honetan zenbakiak ezin objetiboagok dituzkegu. Mende hartan Espainako %15 eta Frantziako %35 balizik etzen alfabetaturik. Arrenkuratzekoa. Beraz emakumea erabat lekoraturik geratu zen ekimen ilustratzaile guztietatik. Salbuespen eskas eta urrien artean Josefa Amar Borbon aragoitarra dukegu, zeinek bere *Discurso sobre la educación física y moral de las mujeres* 1790.eko liburuan askori lakot etzitzazkionak baitzekartzan: «*Los hombres buscan la aprobación de las mujeres, les rinden unos obsequios que nunca se hacen entre sí, no les permiten el mando en público y se lo conceden absoluto en secreto, les niegan la instrucción y luego se quejan de que no la tienen (...) Los hombres instruidos y civiles no se atreven a oprimir tan a las claras a la otra mitad del género humano, por que no hallan insinuada semejante esclavitud en las leyes de la creación. Pero como el mandar es gustoso, han sabido arrogarse cierta superioridad de talento, y yo diría que de ilustración, que por faltarles a estas, parecen estas sus inferiores. Saben ellas que no pueden aspirar a ningún empleo ni recompensa pública, que sus ideas no tienen más extensión que las paredes de una casa o de un convento. Si esto no bastase para sofocar el mayor talento del mundo, no sé que otras trabas pueden buscarse*».

Errioxa arabarraren aldeko Navaridasen 1790.ean sortu zen Faustina Billaberde arras ezaguna zuen batek baino askoz gehiagok Gasteizen XIX. mende hasmentan, Askartzako emagaldua bezala are ezagunagoa apika. Egun bere langintzari buruz iritsi zaigun berri bakarra 1812.eko agiri bat dugu. Horretan alargun gazte dagerkigu. Napoleonen gudari frantximantak zituen bezero nagusi eta Prado izeneko tokia jostaleku hauta. Bide denez eritasun baten baino gehiagoren iturramatzat jo zuten orduko agintariek, eta epailearen aurrean eraman ere egin zuten. Esan gabe doa gartzeleratua izan zela, denbora laburrez baina, geroxeago ere osasun etxean izan baitzen. Handik bere sorterrira itzularazi zuten, bere gurasoengana, baina beharrak eraginik edo, Blasterira abiatu zen ohizkoetara. Hartan Felix Ruiz Gamizkoaren osasun etxean egon zen, eta orduko auzapeza zen Fermin Barruekok zioenez, 20 hogerleko zorra zion aipatu medikuari. Bertakoek ordea, herrian halakorik egoteak zinez altaturik, demokratikoki jipoitu zuten, eta Burgos aldera abiarazi ihes lasterrean. Alabaina, Gasteiatik ere bidali zuten, eta Gasteiza bueltatu zen halabeharrez. Santa Clara barrideko etxe batean bizi izan zen orduan, eta Kale Berriko taberna batean mantenua erdietsi herikidea zuen beste neska batekin. Astiro joan gabe berriz ere atxilotu zuten, eta lazki epaitu ostean, bi urteko zigorra bete zuen Donostian.

Gasteizen bertan 1795.ean sortu Tomasa Lauzurika Sagasta zena ere Faustinarekin egon zen Donostiakoan. 1812. urteko urrian epailearen aurrean salaketa ezarri zuen Zakarias Jose Garridok, Araba eta Trebiñoko polizi burua zenak, izan ere, Plaza Barriko 18. zenbakian bizi zen François Belloc izeneko kapela egile bati urrezko hainbat edergailu eta sos lapurtu baitzion neskame zihardueno. Tomasak bere burua garbitzeko erabili zuen aitzakia aski ulergarria bazirudien, alta garbiketa lanetan ari zela, aipatu bitxiak kausitu zituen, eta nagusiak jatera ematen zion urriaz oroitzuz, ezin izan zuen ukitu gabe utzi. Epaiketa luzatu zitzaion zenbait hilabetetan eta bien bitartean beste lekukoan adierazpenek bordinatzat hartzeko balio izan zuten, bere ahizpa batekin egiten zuen lana bestalde, Quintin de las Casas udal kontseilu buruarena esaterako. Ez dakigu ordea goi mailako lekuko honi nondik heltzen zitzaion jakinaren gainean egoteko arrazoiak, nahiz arras ongi suposatzen dugun. Epaia etzen samurra izan, eta azaroaren 24an hiriko plazan agertarazi zuten, taula gainean, eskuetatik estekaturik eta lepotik kateaturik, soinetik izkribu ozen bezain zikina dilindan esekita: «*Por ladrona, doméstica y prostituta*». Horrela iraun zuen markizaturik hiru orduz, eta egun berean Donostiako espetxera abiarazi zuten sei urtez. Nekoso zait horrelakorik idaztea amaren semea naizen aldetik. Gora martxoaren zortzia, gizonen ahalgetasunaren eguna! ■



Martxoaren 8an, emakumeak kalera

Gaur, arratsaldeko seietan, manifestazioa abiatuko da urtero bezala Gaztelu plazatik

Martxoaren 8a, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatuko dute gaur emakume nafarrek ere. Iruñean, hainbat ekitaldi izan dira aste osoan, Koordinadora Feministak, Andreak, Emakume Internazionalistek, Lilaketa Batzordeak eta IPESeko Emakume Taldeak antolatuta. Gaur, manifestazioa abiatuko da Gaztelu plazatik, arratsaldeko seietan, eta datorren igandean laugarren Lilaketa ospatuko dute.

Edurne Elizondo / Iruñea

GAUR, martxoaren 8a, kalera aterako dituzte emakumeek euren aldarrikapenak, mundu osoan bezala Nafarroan ere bai. Gaztelu plazatik abiatuko da, arratsaldeko seietan, Koordinadora Feministak, Andreak eta Emakume Internazionalistek Iruñean antolatutako manifestazioa. Irurtzenen, Agoitzen, Elizondon eta Tafallan ere egingen dituzte.

Urtero bezala, hiru elkarteok eta baita Lilaketa Batzordeak eta IPESeko Emakumeen Taldeak ere bat egin dute Martxoaren 8aren inguruko ekitaldiak antolatzeko. Eta aurten, inoiz baino egitarau zabalagoa prestatu dutela azpimarratu behar da, joan den asteartean hasi baitziren ospakizunak. Arantxa Rodriguezek hitzaldia eskaini zuen egun horretan, eta biharamunean antzerkia izan zen Oihulari Clown taldearen eskutik. Ostegunean bertan, emakumearen eta artearen inguruan mintzatu zen Pilar del Valle, eta Txaro Berzosa abeslariak bere emanaldia eskaini zuen. Halaber, bihar arte ikusgai da hamabost emakumeek osatu taldeak Gotorlekuko Bolborategian zintzilikatu duen erakusketa. Grabatu, marrazki, zeramika eta makrame lanek eta abarrek osatzen dute.

Baina ekitaldi nagusiak egiteko dira oraindik. Gaurko manifestazioa ezezik, datorren igandean, martxoaren 16, Lilaketaren laugarren ekitaldia ospatuko dute emakume iruindarrek, Lilaketa Batzordeak antolatuta. Manifestazioa bezala, Gaztelu plazan abiatuko da aurtengo Lilaketa, eguerdiko hamabietan. Parte hartu nahi duenak astelehenetik aurrera izanen du izena emateko aukera, Andrearen edo IPESen egoitzan. Emakumeen lasterketa herrikoia hasi aurretik ere, hamabiak laurden gutxi arte, Gaztelu plazan bertan izanen dute Iruñeko emakumeek izena emateko aukera. Hiriko karriketan barrena, 4.000 metroko ibilbidea egin beharko dute.

Lilaketaren helburua zein den garbi dute antolatzaileek: «Emakumeen artean kirola hedatu, adin ezberdinetako emakumeen partehartzea bultzatu norgheia-



Emakumeek kalera aterako dituzte gaur euren aldarrikapenak.

ARTXIBOKOA



Arantxa Rodriguez lan banaketari buruz mintzatu zen asteartean Iruñean.

JOXE LACALLE

goka batean eta emakumeen partehartzea erraztu espazio publikoetan. Eta horrekin batera, Martxoaren 8a ospatu, giro ederrean». Halaxe mintzatu zen Amaia Alduntze Lilaketa Batzordeko kidea, Martxoaren 8aren inguruko ekitaldien aurkezpenean.

Lanaren eta enpleguaren arteko nahasketa • Aurtengo Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren ospakizunak, lanaren banaketaren gaiarekin lotu nahi izan dituzte Iruñeko talde ezberdinek. Talde horietako emakumeen iritziz, hain zuzen, lanaren eta enpleguaren arteko bereizke-

ta egin behar da, «ez baitira inolaz ere berdinak. Ezin dugu ahaztu emakumeok lan asko egingen dugula soldatarik jaso gabe», gogoratu zuen Asun Ramosek.

Arantxa Rodriguez Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ekonomia Aplikatuko Departamentuko irakasle eta Bizkaiko Emakumeen Batzordeko kideak, hain zuzen, lanaren banaketa jeneroaren ikuspuntutik izan zuen mintzagai, joan den asteartean Hizkuntz Eskolan eskaini hitzaldian.

Rodriguezek azpimarratu zuenez, berriro ere, «lanaren banaketaren eztabaidatik kanpo gelditu gara emakumeok, eta horrek

zerikusirik badu lanaren eta enpleguaren arteko nahasketarekin». EHUko irakaslearen ustez, «lan eskasiaz mintzatzen dira, baina ez da zuzena. Langabezi tasak enpleguaren eskasiaz mintzatzea justifikatzen du, baina feministok beti erran dugun moduan, lana soberan dago, enplegua nahi dugu».

Enpleguaren eta lanaren arteko nahasketaren ondorioz, «etxean egingen den lan guztia ez da kontuan hartzen», Arantxa Rodriguezek nabarmendu zuenez; beraz, «lan merkatua ezezik, espazio pribatuan egingen den lan hau guztia ere, etxeko lana, berregituratu behar da, banatu. Hori egingen ez den bitartean, emakumeen emantzipazioaren proiektua hankamotz geldituko da. Emakumeak lan merkatuan baldintza berdinetan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da lana banatzea».

Unibertsitatean ere berdintasunaren alde

NAFARROAKO Unibertsitate Publikoan ere aste osoa eman dute lanean bertako Lamiak Emakume Elkarteak kideek. Astelehenean hasi ziren talde horrek Martxoaren 8aren inguruan antolatutako ekitaldiak. NUPeko antzerki taldeak antolatutako muntaiak eman zien hasiera Lamiak-ek antolatutako jardunaldiak. Antzezlan horretan, emakume tipo ezberdinak agertu zituzten aktoreek, emakumearen inguruan eztabaidan.

Aktoreak taula gainera igo baino lehen, Sandra Pascal eta Beatriz Etxeberria Lamiak Emakume Elkarteak kideekin mintzatzeko aukera izan genuen.

Lamiak taldeak hirugarren urtea bete du aurten. Gizarte Laneko bigarren mailako ikasleek osatzen dute, guztiak neskak. Dena den, taldea «parte hartu nahi duenarentzat zabalik» dagoela azpimarratu nahi izan du Sandrak. Gizarte Laneko ikasleok Lamiak elkarteak aukeratu dute euren praktikak egiteko, eta hori dela eta, emakumearen gaia jorratuko dute ikasurte osoan.

Martxoaren 8aren inguruko ekitaldiak antolatu ezezik, urte osoan egingen dute lan Lamiak taldekoek, batez ere ikerketak egingen. «Baina egun hauetan, jardunaldi hauen bidez, protagonismoa hartu nahi dugu emakumeok eta gaia gehiago sakondu», gaineratu du Sandrak.

Orain, hain zuzen, NUPen emakumeen egoera zein den aztertzeko ikerketa egingen ari dira ikasleok. «Besteak beste, karrera hautaketa aztertuko dugu, orain arte Giza Zientzien ingurukoak aukeratu baitituzte batez ere emakumeek. Hori aldatzen ari den edo ez jakin nahi dugu, beste gauza askoren artean», azpimarratu du Beatrizek.

Unibertsitatean emakumeek bizi duten egoerari buruz ere badute zer erranik emakumeok: «Alderdi ezberdinak daude. Alde batetik, lengoaiari dagokionez, sexismoa atzeman daiteke hemen ere. Jasotzen dugun lehen liburua erdaraz *Guía del alumno* izenekoa da, eta hor jada bereizketa egingen dute. Baina ez dut uste unibertsitatean emakume eta gizonezkoen arteko ezberdintasuna oso handia denik, behintzat ez da lan merkatuan bezainbeste nabaritzen, ez dago agerian», azaldu du Sandra Pascalek.

Beatrizek argi dauzka gauzak: «Gauzak aldatzen hasi dira baina lan asko dago egiteko oraindik. Unibertsitatean, adibidez, gizonak daude kargu inportanteenetan. Baina, poliki-poliki, hori ere aldatu egingen da. Emakumeok kontzientziatu egin behar dugu eta gure ahotsa entzunarazi».

Gaurko manifestazioan eta Lilaketan parte hartzeko deialdia zabaldu du Lamiak taldeak. X

♦ Silvia Alonso ♦ Karrikiriko kidea

«Ez dugu inoren pean egon nahi»

Urtearekin batera, Karrikirik bulegoa zabaldu zuen Iruñeko Xabier kaleko 2. bis zenbakian. Asmoa, dena den, lehenagokoa zen, orain dela bi urtekoa. Euskara erabiltzeko, euskaraz bizitzeko Iruñean dauden zailtasunak ikusita erabaki zuen lagun talde batek Karrikiri sortzea, euskaldunak bildu eta antolatzeko.

Edurne Elizondo / Iruñea

KARRIKIRIKO kideetako bat da Silvia Alonso, hain zuzen bulegoko ardura bere gain hartu duena. Arratsaldero egoten da bertan, baita goizez ere astearte eta ostegunetan. Karrikiriren asmoak eta helburuak izan ditugu berarekin mintzagai.

■ Nola sortu da Karrikiri?

Orain dela bi urte batzuk elkartu ginen kezkatuta euskaldunek Iruñean euskara erabiltzeko geniten arazoak ikusita, eta beste leku batzuetan horri aurre egiteko saialdiak bazirela oharturik, elkartu ginen eta hasi ginen pentsatzen zer aukera zegoen Iruñean halako elkarte bat sortzeko, azken finean, euskaldunei euskara erabiltzea errazago egiteko asmoz.

■ Zein da zuen helburua?

Gure helburua da euskaldunekin harremanetan jartzea eta euskaldunentzat lan egitea. Dena den, hemengo egoera soziolinguistikoa ikusita, argi dago eraldunak eta euskara ikasten ari direnak ere kontuan hartu behar ditugula. Baina guk hutsunea batez ere euskaldunen artean ikusten genuen. Orain arte irakaskuntza izan da ardatza, baina erabilerari aldetik, euskaldungoaren harremanetan nola sartu, lotura hori egin gabe zegoen. Horregatik hasi ginen biltzen orain dela bi urte, ikusten genuelako dinamika berria sortu beharra zegoela. Txirrindulariekin bezala gertatzen da Iruñean euskaldunekin, ezin direla hirian ibili haietaz biderik ez dagoelako.

«Iruñean euskara erabiltzeko dauden zailtasunek kezkatuta bildu eta erabaki genuen Karrikiri sortzea»



Silvia Alonso, Karrikiriko bulegoko arduraduna, Mikel Aranburu taldekidearekin.

LUIS AZANZA

Euskaldunentzat ere bideak egin gabe daude eta hori izanen da gure lana, erabilpena bultzatzeko. Horretarako zerbitzuak eskainiko ditugu.

■ Zer-nolako zerbitzuak eskainiko dituzue?

Azpimarratu behar da, guretzat garrantzitsua dela antolatzea, gure zerbitzuen bitartez erabilpena bultzatu eta, horrela, motibazioa ere bultzatu. Gure jarduerak orokorra da. Zerbitzuen artean, gure asmoa da poliki hasi, lehenbiziko batzuk eskaini eta horiek nola funtzionatzen duten ikusita eta behararen arabera, gehiago eskaintzea. Zehazki, lan poltsa osatu nahi dugu, itzulpen eta zuzenketa zerbitzua, bakarrik euskara ikasten ari direnentzat kontsulta ordutegia abian jarri, eta abar. Halaber, informazio zerbitzu iraunkorra osatu dugu, hainbat gairi buruz-

ko zehaztasunak jasotzeko, besteak beste izen-abizenak aldatzeko prozedurari buruz, oporrak euskaraz igarotzeko dagoen aukerari buruz, eta abar. Dena den, bi aldetako zerbitzuak izatea nahi dugu, jendea ere guregana hurbiltzea euren iritzia eta beharrak plazaratzera. Iruñean 20.000 euskaldun bageaude, euskaraz funtzionatzeko eta bizitzeko baliabideak sortu nahi ditugu, laburbilduz.

■ Karrikirik urrats bat gehiago egin duela erran daiteke beste talde batzuen aldean, aldarrikapenetik haratago joan dela?

Aldarrikapenean gertatzen da konponbidea besteengan uzten dela. Baina guk beste proposamen bat egin nahi dugu. Noski, Administrazioak bere erantzukizuna du, baina euskaldunok ere badugu gurea, eta guri dagokigun gaia izanik, horretan lan egin behar dugu.

■ Zuen asmoa aurrera ateratzeko, zer pauso emanen duzue aurrerantz?

Urratsak mota askotakoak dira. Alde batetik badira fisikoak,

Hilabete hauek eman ditugu bulegoa antolatzen eta urtearekin batera zabaldu genuen, eta uste dugu garrantzitsua dela bulegoa martxan egotea, jendearentzat erreferentzia izan daitekeelako. Beste urrats bat zen denon artean proiektu komuna osatzea. Talde honen ezaugarri garrantzitsu bat da zabalza izatea, denok lekua izatea hemen. Hasi besterik ez dugu egin, ildoak markatu, lanean jarraitzeko.

■ Iruñean zuen proiektua gauzatzeko aukera izanen dela uste duzue?

Euskalduna zara helburu batekin, azken finean euskalduna izatea ez da euskara ikastea, euskaraz bizitzea da. Hor, edo atzera edo aurrera egiten duzu, ez da nahikoa euskara jakitea. Beraz, beharra hor dago, orain zaila baita gauza asko euskaraz egitea, eta esparru askotara heltzea. Beharra hain nabarmena izanik, urratsen abiadura ez dakigu zein izanen den baina argi dugu egin behar dela. Komunitatea ez bada eratzen, erreferentzia ez badugu guk sortzen, erdaldunek gunerik

s o s l a i a

Karrikiriren bulegoko arduraduna da Silvia Alonso. Astelehenerik ostiraleri, arratsaldeko bost eta erdietatik aurrera egoten da bertan, «amaitu arte». Eta astearte eta ostegunetan, berriz, goizeko hamaika eta erdietatik ordu biak arte ere bai. «Ez dut aspertzeko denborarik», aitortzen du.

Karrikiriren asmoa orain bi urte sortu bazen ere, berriki jarri da abian. Egunduz, 80 bat kidek osatzen dute. «Bakoitzak ahal duen neurrian hartzen du parte, batzuk bazkide dira, beste batzuk lanera etortzen dira, beste batzuek badute gure berri...».

Karrikiriren berri izateko, hain zuzen, modu egokiarekin da hileroko kaleratuko duten buletinari so egitea. Lehenengoa ja da kalean da. Irudi eta komunikazio taldearen ardura da hori egin eta plazaratzea.

edo erreferentzia garbirik eta koherenterik ez badute ikusten, ez dute ikasiko. Motibazioa elikatu beharra dago, euskaldunon gure hori atsegin eginez. Bidean orotopok aurkituko ditugu, ziurrenik, baina beharra hori dago.

■ Nola funtzionatuko du Karrikirik?

Lau lan talde osatu ditugu oraingoz. Bata da hausnarketa taldea, beste bat irudi eta komunikazio taldea, zerbitzuen taldea eta azpiegitura taldea, Karrikiri mantentzeko behar dugun dirua nondik eta nola lortu prentsatzeaz arduratzen dena.

■ Alde horretatik, autonomia izan nahi du Karrikirik?

Bai, guretzat oso garrantzitsua da autonomia izatea, bai ideien aldetik eta baita ekonomikoki ere, ez dugu inoren pean egon nahi. Horregatik oso garrantzitsua da azpiegitura taldearen lana. Dena den, ez diogu uko egingen Administrazioetik etor daitekeen laguntzari. x

P A N E
LUCRÁNDO

ZALDI ERØA